

## TXEKEO TEKNOLOGIKOAK PROGRAMA 2021

<b>Helburua (1.oinarria)</b>	Enpresek berrikuntzaren arloan lehen urratsak egin ditzaten sustatzea, kanpoko Teknologia Eragile baten laguntzarekin.
<b>Erakunde Onuradunak (2.oinarria)</b>	<p>Bizkaiko enpresak, euren jarduera nagusia <b>Industria, Garraioa, Eraikuntza, Industriari lotutako zerbitzuak, Turismo eta handizkako Merkataritza</b> sektoretan kokatzen bada (dekretuaren I. eranskineko epigrafeen arabera), eta honako baldintzok betetzen badituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Bizkaian</b> izatea egoitza soziala, zerga-egoitza eta, gutxienez, ekoizpen-zentro bat.</li> <li>• Plantillan <b>5-100 pertsona</b> izatea</li> <li>• Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak egunean izatea.</li> <li>• 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluko ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.</li> </ul>
<b>Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (5. eta 3.oinarriak)</b>	<p>Enpresa eskatzailearentzako, Teknologia Eragile baten bidez, Txkeo Teknologiko bat egitea hau bete behar duena:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Arazoa – konponbidea logikari</b> erantzutea</li> <li>• <b>Arazo zehatz</b> bati buruzkoa izatea, eta ez zerbait orokorraz.</li> <li>• <b>Ekoizpen-prozesu edo produktu/zerbitzu</b> bat ukitu behar du.</li> <li>• <b>Eragileak bi aukeraren edo gehiagoren arteko konponbiderik egokiena</b> proposatu behar du.</li> <li>• <b>Konponbidearen ezarpena ez da</b> sartzen txkeoan, berehalakoa eta eraginik gutxieneko ez bada izan ezik.</li> <li>• Konponbideak osagai <b>teknologiko</b> bat eduki behar du</li> </ul> <p><b>Txekeo teknologikoa ez da</b> berrikuntza-proiektu bat, proposatutako konponbidea lortzeko berrikuntza-proiektu bat garatzeko aukera planteatu dezakeen arren.</p> <p><b>Teknologia Eragiletzat</b> jotzen dira, nahiko <b>ezagutza eta esperientzia</b> dituen erakundea enpresari txkeo teknologiko bat egiteko, <b>ondo egingo duela nahiko bermearekin</b>: ingeniari (nagusiki JESN: 7112, 7120, 7490 duten), eta diseinu industrialeko (nagusiki JESN: 7410 duten) enpresak, lanbide-heziketako zentroak eta zentro teknologikoak. Txkeoan aukeratutako konponbide teknologikoa teknologi eragileak berak aplikatu badezake, <b>beste bi aukerako hornitzaile</b> aurkeztu beharko dira.</p>
<b>Diru-laguntza jaso dezaketeko gastuak (8.oinarria)</b>	<p>Xede den Txkeo Teknologikoa egiteko Teknologia Eragileak kontratatuzko <b>kanpoko gastuak</b>.</p> <p><b>Diru-laguntzarik jasoko EZ duten gastuak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 100 € (BEZa kenduta) baino gutxiagoko gastuen frogagiriak sortzen dituzten kanpoko gastuak edo kanpoko inbertsioak.</li> <li>• Zergak eta tasak; ezta BEZa ere.</li> <li>• Deskontuak.</li> <li>• Zeharkako gastuak.</li> <li>• Gastu orokor osagarriak.</li> <li>• Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoela erakusten duten gastuak.</li> <li>• Diru-laguntzaren xedearekin argi eta garbi identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzerako epearen barruan egiten ez direnak.</li> </ul>
<b>Diru-laguntzen zenbatekoa (7.oinarria)</b>	<p><b>Txekeo teknologikoaren % 80</b> besteko diru-laguntza emango da.</p> <p>Erakunde bakoitzeko <b>10.000 euro</b> emango da <b>gehienez</b>.</p>
<b>Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea (6.oinarria)</b>	<p>43/2021 Foru Dekretua, apirilaren 20koa (BAO 75 zk. 2021ko apirilaren 23koa).</p> <p><b>Norgehiagokarik gabeko prozedura</b>ren bidez emango dira diru-laguntzak.</p>
<b>Epeak (9. eta 15.oinarriak)</b>	<p><b>Txekeoak egiteko eta fakturatzeko epea</b> 2021ko urtarrilaren 1etik 2021ko abenduaren 31arte izango da. 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen ordaindu behar dira (egun hori barne).</p> <p><b>Eskabideak aurkezteko epea</b> 2021ko maiatzaren 10etik hasita irailaren 30ko 13:30era bitartean.</p>
<b>Eskabideak (22.oinarria)</b>	<p>Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren bulego birtualean (<a href="http://www.bizkaia.eus/sustapena-OficinaVirtual">www.bizkaia.eus/sustapena-OficinaVirtual</a>). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Azken hau Bilbon, Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke.</p>
<b>Eskabide-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa (17.oinarria)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Eskabide telematikoa, 22. oinarrian ezarritakoaren arabera.</li> <li>– Kontratuen, eskaintzen, proforma fakturen eta/edo behin betiko fakturen kopiak, aurreikusitako edo exekutututako gastuaren zenbatekoa egiaztatuzko modua izateko.</li> <li>– Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira, hartzekodunaren fitxa.</li> </ul>